

*Margarita -
Zarautz, Gipuzkoa (1911)*

Aurkibidea

Biografia

"Zarauzko aitona-amonen hizkera" bekarako egin zitzaion elkarrizketa 1987. urtean.

Zintak

ZAR-120

- **Proiektua:** Zarauztar aitona-amonen hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zurutuza Salsamendi, Idoia
- **Data:** 1987-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Zurutuza Salsamendi, Idoia

Pasarteak

1. Herriko plaza

- **Erref:** ZAR-120/002
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:01:01. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Herriko plazako giroaz hitz egiten du. Feria bertan egiten zen. Zarauzko bandak igandetan jotzen zuen, eta jendea dantzan aritzen zen.</p>

Transkripzioa

Baita ere herriko plaza oso polita zan, orain bezela. Han zeon konsejua arko batzuekin, eta gu hantxen ibiltzen giñan jolasian, baita ere sakaponetan. Orduan feriya plazan egiten zan, ganauak eta txerriyak, txerriyana. Plaza dana, plaza dana zikintzen zuen, eta gero bazan gizon bat muiñeka motza deitzen ziyotena, eta harek mangakin dana garbitzen zuan. Zarauzko bandak jayetan jotzen zuen arratsaldeko bostetatik gabeko zortziretara. Eta jendia kioskuari buelta emanaz, dantza egiten zuan. Ttunttunak, ttuntuna ere jotzen zuen, juntatzen giñan neska-kuadrilla, ta dantzan egiten genuen.

2. Herriko giroa oro har

- **Erref:** ZAR-120/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:04:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

<p>Santa Marina eliza lehen non zegoen azaltzen du: festak egiten ziren han. San Simon egunean zer egiten zuten kontatzen du. Udan aristokrazia etortzen zen uda pasatzera. Eskola publikoak non zeuden azaltzen du. San Pelaioei buruz hitz egiten du.</p>

Transkripzioa

Santa Marina eliza leno plazuelan erdiyan zeon; orain kale berdiñan, baiño toki ezberdiñan, orain bezela festak egiten ziren. San Simon egunian, joaten giñan Zarauzko ume danak parrokira, eta han bezperak egiten zituen. Hura bukatzian, joaten giñan “Marqués, Marqués de Narrosko” palaziyoa, eta han maten zuen merienda txokolatia, txokolatia bizkotxuakin, eta espon... ura esponjakin. Udaan aristokraziya etortzen zan beraneatzera, eta txaletak zauden

Mendilautan, esaten ziyoten toki harei. Gabian etortzen ziran musika plazara dantza egitera. Kale nagusiyan zauden eskola publikoak. San Pelayo egunian festa egiten zan San Pelayoko zelayan. Juaten giñan perkalezko soiñeko loreunakin, eta alpargeta zuriyakin. Jotzen zun bandak: dulzinak eta txistulariyak. Oso ondo pasatzen genduen. Baita ere egoten ziran txurreruak eta barkilleruak, jolasketa ere bai, deitzen ziyoten txuri-gorri. Han diruakin jolasten zan. Festa bukatzian, pasakaillian etortzen giñan plazara.

3. Hondartzako giroa

- **Erref:** ZAR-120/004
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:05:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Eguraldia, ilargia eta mareak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

Hondartza beti izan da polita, eta zer giro izaten zen han azaltzen du. Aberatsak ez zirenak goizean goiz bakarrik joaten ziren hondartzara. Emakume aberats batek herriko umeen alde egindakoa kontatzen du. Itsaso zakarra egon zen egun bat gogoratzen du.

Transkripzioa

Hondartza beti bezela polita izan da. Han egoten ziran kaxetak eta baiño... baiñoko erropak alkilerrian. Aberatsak baiñaderuakin baiñatzen ziran, eta gero kaxetara joaten ziran aldatzera. Gu nola ez giñan aberatsak, neska-kuadrilla joaten giñan goizeko zazpiretan moilla baiñatzera. Toldoak ere aberatsak jartzen zituen, baiño bazan seiñora aberats bat, Unzurrunekua esaten ziyoten. Harek toldo handi bat jartzen zun, zuan, Zarauzko ume danentzat.

Leno Munua ez zan oain bezela, eta hondartzan bajatzen, baja... bajadan, arranpalak ziran. Egun batean itsasoa oso txarra eta hasarria zeon, arranpala iyo, eta goitik behera Ipar kaletik Musika plazaraño jetsi zan. Nahiko zakar ekarri zuan.

4. Herriari buruzko zertzeladak

- **Erref:** ZAR-120/005
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:05:34. **Bukatu:** 00:06:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Jai-giroa » Zezenak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Kanaleko ontziolaren uretaratze bat ikustera joan ziren behin. Fraideen komentuan herriko pobreei bazkaria ematen zieten. Zezenak egiten ziren herrian.</p>

Transkripzioa

Akordatzen naiz astillero bat zala kanalian, eta han egiten zituen barko haundiyak, haundi bat, han egin zuen barko haundi bat; eta haren botadura ikustea joan giñan.

Baita ere, Frailetan, Frailetako konbentuan eguardiko hamabitan, herriko pobriari bazkaya ematen ziyoten. Juten ziran kapaxo... kapaxua eta lapikuakin. Galdetzen ziyoten zenbat, itxian zenbat lagun ziran, hainbeste jan ematen ziyoten.

Zezenak ere iten zituen Munuan, egurrezko plazara, plaza're, egurrezko plaza're jartzen zuen, eta Zarauzko seiñoritak juaten ziran "mantón de manilakin" plazari buelta ematera. Jende asko juaten zan ikustera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com